

B2/C1

2.

**EUSKARALDIA.**

*aek*

## HELBURU NAGUSIAK:

- Euskaraldia ezagutzera ematea eta parte hartzera gonbidatu
- 2. edizioaren berrikuntzak ezagutzera eman.
- Belarriprest eta Ahobizi rolen gaineko hausnarketa egin.

## HELBURU DIDAKTIKOAK:

- Elkarrizketa batean argudioak identifikatu (adibideen bitartez, zergatien bitartez...) eta iritzi zehatzak defendatzeko argudioak eman.

### 1. jarduera: Aurrezagutza piztu eta kanta ezagutu

- Egin solasaldia ikasleekin; horretarako, gidoia erabili (**4. or.**).
- Ikusi Euskaraldiaren *Ezagutu Euskaraldiaren nondik norako guztiak* [bideo-pasarte](#).
- 3 talde egin, eta talde bakoitzari rol bat banatuko zaio: Belarriprest, Ahobizi edo Arigunea. Talde bakoitza dagokionaren definizioa egiten saiatuko da (**4. or.**), kontuan hartu COVID-19aren ondorioz ezarritako osasun neurriak, eta ondoren talde handian definizioa emango dute. Azkenik, benetakoekin alderatuko dute (**5. or.**).
- Euskaraldiko kantaren izenburuari erreparatuko diogu: 24/7. "Zer dela eta izenburu hori?" galdetuko diegu ikasleei. Errondatxoa egingo dugu ea asmatzen duten. Erantzuna: *24 orduz, 7 egunetan euskaraz; hau da, egunero eta une guztietan*. Ikusi Euskaraldiaren abestiaren [bideoa](#) eta hutsuneak bete (**6. or.**).

### 2. jarduera: "Euskaraldia entrenamendua da, ez partida"

- Testua irakurriko dute (**7.or.**).
- Galderak erantzuteko tarte bat emango diegu: 10 minutu, gehienez (**8.-9. or.**).
- Ondoren, talde handian komentatuko ditugu erantzunak eta eztabaida bideratuko dugu.
- Eta zuek, zer? Belarriprest ala Ahobizi? [Izena](#) emateko prozedura azaldu.
- Ikusi beste bideo-pasarte [hau](#) eta Yasmine Khri AEK-ko ikaslea ezagutu. Egia ala gezurra galderei erantzun. (**11. or.**).





### 3. jarduera: Nire herrian, zer?

- *Ikusi Ariguneak*, adostasunaren garrantzia [bideo-pasartea](#), eta argudio nagusiak identifikatuko dituzte. (12. or.)
- Ariguneak: inguruan ditugun Ariguneen [mapa](#) gelara eramango dugu (lotura honetan Ariguneen kokapena topa dezakezu; bestela, zure inguruan antolatu den Euskaraldiaren batzordeak informazioa izango du). Irakasle bakoitzak bere eskualdean, herrian, hirian, auzoan... dauden Ariguneen mapa edo planoaren eramango du.

Gaia dinamizatzeko, galdera hauek egingo dizkiegu:

Espero al zenuten Arigune horiek izatea? Gehiago nahiko zenukete? Zein? Non?


- Ikasleen herrian/auzoan antolatu diren jardueren berri eman.

### 4. jarduera: Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan

- *Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan* da 2020ko Euskaraldiaren leloa. Ikasleek adierazi beharko dute ikasturte honetan, euskaltegian eta euskaltegitik kanpo, zer egin nahiko luketen gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan. (13. or.)
- Idatzitakoa jaso eta irakasleak banan-banan irakurriko dituzte testuak, ikasleek bakoitza nork idatzi duen asma dezaten.
- Aurten *Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan* da Euskaraldiaren leloa. Gehiago hitza mugagabean deklinatzen da. Haren erabilera hobeto ezagutzeko, [bideo](#) honetan noiz erabiltzen den ikusiko dugu. Har itzazu berriro ikasleek egindako testuak eta, beharrezkoa bada, mugagabea zuzendu.
- Nahi izanez gero, mugagabean gehiago sakontzeko ariketa bat proposatu dizugu. (14. or.)

### Material osagarria:

- Hau da [Euskaraldiaren webgunea](#). Bertan, Euskaraldiaren nondik norako guztiak ikusi ahal dituzue.
- Hau da [Euskaraldiaren Youtube kanala](#). Bertan, bideo interesgarri asko topatuko dituzue.
- AEK-ko ikasle baten testigantza duzue bideo honetan: [Joseba Attard](#)



# 1. jarduera: Aurrezagutza piztu eta kanta ezagutu

Solasaldia egiteko gidoia:

- a. Gogoratzen duzue lehenengo Euskaraldia?
- b. Nola bizi izan zenuten?
- c. Parte hartu zenuten? Belarriprest ala Ahobizi?
- d. Gogoratzen dituzue ideia nagusiak?
- e. Gogoratzen duzue bideorik? Kantarik?
- f. Nolakoa zen logoa? Eta txapa?
- g. Gogoratzen duzue gertakari berezirik?

3 taldetan, eta Euskaraldiko rol bana hartuta, egin ezazue dagokizuen rolaen laburpena.



.....

.....

.....

.....

.....



.....

.....

.....

.....

.....



.....

.....

.....

.....

.....



Ikaslearentzako orriak





## AHOBIZI

Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean ere, lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean.



## ARIGUNEA

Ariguneek, edo euskaraz aritzeko guneek, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean. Talde hauetako kideek Ahobizi eta Belarriprest modura jardungo dute Euskaraldiak iraungo duen 15 egunetan, baina ariketa modu kolektiboan gauzatuko dute Ariguneetan. Hala, bi motatako Ariguneak bereizten ditugu:



### Barne-ariguneak

Entitate baten baitan ohiko dinamika duten eta kide guztiek gutxienez euskara ulertzen duten taldeak dira. Entitate-motaren arabera, ohiko funtzionamendua duten talde horiek askotarikoak izan daitezke (sailak, atalak, ekipoak, sekzioak, zerbitzuak, taldeak...). Talde honetako kideek barne-arigunea osatzea erabakitzen dutenean, modu kolektibo batean euren arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko aurrerapausoak ematea adostuko dute. Arigunea osatzeko, beharrezkoa izango da taldeko kideen % 80 gutxienez ados egotea. Ariguneetako kide bakoitzak erabakiko du nola parte hartu: Ahobizi edo Belarriprest moduan.

### Kanpo-ariguneak

Entitatean herritarrekiko harreman-espazioetan dauden pertsonen osatzen dute kanpo-arigunea, uneoro Belarriprest edo Ahobizi bat egongo dela bermatzen bada; hau da, herritarrek uneoro euskaraz artatuak izateko bermea badute. Horrelako espazioak izango dira jendaurreko edo harrera-postuak, supermerkatuetako kutzak, telefono bidezko arreten arduradunak, tabernariak edo dendariak, besteak beste.



## BELARRIPREST

Nire gaitasun eta aukeren arabera erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskaraz dakitenek niri uneoro euskaraz hitz egitea nahi dut; eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.

# Euskaraldia 2020 kanta

## 24/7

Gehiago... Gehiagorekin... Gehiagotan.

Prest al zara? Esan, esan... esan, esan

Prest al zara? Esan... bai!

... zaindu... zain gu... maite duzuna?

Armairutik atera armairua bera!

Atera, ba! Atera!

Bagera – ezer ez da berdin (e)ta \_\_\_\_\_

Bagare – ez da erraza, baina halere...

Bagira – ez geratu begira

Bagire – ez esan ez dela \_\_\_\_\_

Zenbat gara? Ni, bat

24 / 7

Zenbat gara? Gu, bat

Asko (e)ta ez \_\_\_\_\_

Prest bazara esan, esan

Prest bazara esan

Prest bazara esan, esan

"Jalgi hadi \_\_\_\_\_ . jalgi hadi

Han bat eta han bi.

Hainbat... eta handi!

Jalgi hadi . \_\_\_\_\_ adi, adi

Batera... bat bera..."

Bagera – mugetan preso inor ez dadila gera

Bagare – aspaldi \_\_\_\_\_ ahoen zain daude

Bagira – \_\_\_\_\_ belarrien bila dira

Bagire – gorputz txarrik ez da bizitzeko libre

Zenbat gara? Ni, bat

24 / 7

Zenbat gara? Gu, bat

Asko (e)ta ez aski



Ikaslearentzako orriak



dek





## 2. jarduera: Euskaraldia entrenamendua da, ez partida

Ikaslearentzako orriak



dek

### Elkarrizketa

Pello Jauregi

## “Euskaraldia entrenamendua da, ez partida”

Pello Jauregi EHUko irakaslea da eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko egitasmoak ikertzen aritzen da. Euskaraldiko *Belarriprest* eta *Ahobizi* figuren diseinatzaileetako bat da. Euskaraz egin nahi dutenentzat koltxoia prestatu behar dela uste du, eta ingurune eroso hori *Belarriprestek* osatzen dute. *Belarriprest* figuraren garrantzia azpimarratu du elkarrizketan.

### Onintza Irureta Azkune @oirureta 2020ko abuztuaren 02a

"Arrazoizko epe batean, gutxienez ulermen unibertsala ziurtatu behar da, Euskal Herrian, edonon, euskara denek ulertuko duten testuingurua".

**2018ko Euskaraldian *Ahobizi* eta *Belarriprest* rolen artean *Belarriprest* izatea aukeratu zenuela adierazi zenuen. Kazetari honek ez zuen hautua ulertu, euskara-gaitasuna eta hizkuntza-kontzientzia duenak *Ahobizi* rola jokatatu beharko zukeelakoan, baldin eta norberaren hizkuntza-ohiturak aldatzea bazen helburua. Berdin pentsatzen segitzen duzu?**

Are gehiago, lehenengo hartan bi figurek jaso zuten harrera kontuan hartuta, aurten ahalegin berezia egin beharko litzateke *Belarriprest* figura areagotzeko. Aurrekoan *Ahobizi*-rako joera erraz samar antzeman zen, "Ni euskalduna naiz; beraz, *Ahobizi* naiz", pentsatu zuen jende batek. Ez zuten kontuan hartu rola ez duela hitz egiteko gaitasuna bakarrik eskatzen, rol horrek konpromisoa eskatzen du: prest nago nire hizkuntza-ohiturak aldatzeko; prest nago euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz hitz egiteko, eta ezezagunekin lehen hitza euskaraz egiteko. Alegia, "Euskaraz bizi nahi dut ahal dudan

momentu guztietan". Euskaraz bizitzeko gogo handia duten horiek euskararen legamia dira, benetako motorra.

Beste figura *Belarriprest* da, eta aurrekoan *Ahobiziak* baino askoz ere gutxiago izan ziren. Nire logikan behintzat, askoz ere *Belarriprest* gehiago behar dira, *Ahobiziak* baino. Une honetan bi figura horietatik bat kendu beharko bagenu, nik *Ahobizi* figura kenduko nuke.

Zergatik behar dira *Ahobiziak* baino *Belarriprest* gehiago?

Errealitatearen ispilua hori delako. Euskaraz ondo hitz egiten dutenen eta euskaldun pasiboak direnen artean, gehienek ez dute euskaraz hitz egiten. Ez da errealista pentsatzea bat-batean jende guztiak euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartuko duela. 2018an, zurikeriatik gehiago egon zen: euskalduna naiz, beraz *Ahobizi* naiz. Eskatzen zuen konpromiso-maila ez zen bete kasu askotan.

*Belarriprest* figurak konpromiso-maila txikiagoa eskatzen du, errealistagoa da. Batzuek ulertzen dute euskara, baina hizkuntza-ohiturak aldatzeko ez daukate iniziatibarik; beste batzuek ez dute nahi; beste batzuek ezezagun guztiei euskaraz egitea nekezegia egiten zaie... baina



ulertzen dute, eta jendeak euskaraz egiten badie prest daude euskaraz egiteko. Rol pasiboagoa da. Jende askok tokia eduki beharko luke hor.

Pasiboagoa da, bai. Batzuk euskaraz egiteko gai dira, eta rol horrek ez die eskatzen euskaraz egitea.

Kontratu soziala da. Txapak adierazten du bakoitzak nola jokatu duen ariketa egiten den bitartean. Batzuek konpromiso sakon bat hartuko dute eta beste batzuek konpromiso txikixeagoa, baina konpromisoa da. *Ahobiziak* euskaraz hasten direnean eta *Belarriprestak* parean dituztenean, gehienak pasatuko dira inertziaz euskarara, badago kutsadura-fenomeno bat. Mekanismo psikologikoa da, hizkuntza-simetria esaten zaio; alegia, eroso sentitzen gara hizkuntza bereko elkarrizketetan. Euskaldunok horretaz badakigu zerbait. Antzematen baldin badugu solaskideak erdaraz egiten duela, gehienok erdarara pasatzen gara.

(...)

Ez dugu bi hizkuntzatan elkarrizketak izateko ohiturarik. Euskaraldian halako praktikak egin dira. Zer moduzko esperientzia izan da?

Ele biko elkarrizketek funtzionatzen dute, baina ezin dira modu masiboan aplikatu. Oso antinaturalak dira. Ahalegin gehigarria eskatzen dute eta benetan gogo handia daukaten pertsonak baino ezin dituzte egin. Ezin dugu pentsatu euskara-gaitasun handia duten guztiek horrela jokatu dutenik. Eusle metodologia aplikatzen dugunean, lantokietan eskatzen dugu % 20 izatea *Ahobizi*, eta horiek denei egiten diete euskaraz, nahiz eta askok erdaraz erantzun. Egoera horretan, ele biko elkarrizketa instituzionalizatzen da. Gutxi batzuen lan hori lurrikara da, eta denen artean lortzen dute erabileran gora egitea. Baina beti izango da minoritarioa eta borrokarako tresna bat, erabilera suspertzeko bultzagile bat.

(...)



## Euskaraldia entrenamendua da, ez partida



Testua irakurri ondoren, erantzun galdera hauei:

**a. "Askoz ere Belarriprest gehiago behar dira, ahobizi baino". Zergatik esaten du hori Jauregik? Zein arrazoi ematen ditu? Eta zuk, zer uste duzu?**

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....





**b.** Zer da hizkuntza-simetria? Zer iritzia duzu?

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

● Ikaslearentzako orriak  
●  
●  
●  
●  
●  
●  
●  
●  
●

**c.** "Ele biko elkarrizketek funtzionatzen dute, baina ezin dira modu masiboan aplikatu". Zein argudio ematen du Jauregik hori esateko? Zer uste duzu zuk? Baduzu halako esperientziarik?

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

*dek*





Yasmine Khristi egindako elkarrizketa ikusi ondoren, aipamen hauek egia ala gezurra diren esan behar duzu:

- e** **g** Euskal Herrira etorri da euskara ikasteko asmoz.
- e** **g** Euskara ikasteko zailena gogoia jartzea da.
- e** **g** "Eragin" hitza oso zabala da, eta beti mugimenduan gaudela esan nahi du.
- e** **g** "Auzolana" hitz zabala izatetik hitz zehatza izatera pasatu da azken urteetan.

### 3. Jarduera. ARIGUNEAK: adostasunaren garrantzia



Identifika ezazu zein argudio aipatu dituzten Ariguneen garrantzia azpimarratzeko:

**A**

.....  
.....  
.....

**B**

.....  
.....  
.....

**C**

.....  
.....  
.....

**D**

.....  
.....  
.....

**E**

.....  
.....  
.....



Hirunaka, entzundakoaz egingo duzue solasaldia, esandakoak baloratuz, zuen iritzia emanez...



Ikaslearentzako orriak



## 4. jarduera: Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

Honela dio 2020ko Euskaraldiaren leloak: *GEHIAGO, GEHIAGOREKIN eta GEHIAGOTAN*.

Ikasturte honetan, zure euskaltegian, zer egin nahiko zenuke gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan? Eta euskaltegitik kanpo?



Ikaslearentzako orriak



A large rounded rectangular area with horizontal dotted lines for writing.





## 4. jarduera: Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

Mugagabea erabiltzen trebatzeko, bete itzazu esaldi hauek behean dituzun hitzekin:

- Nire lagunari ez egin kasu handirik, beti \_\_\_\_\_ dabil eta.
- Babarrun (indaba) gorriak egosi baino lehen, \_\_\_\_\_ egon behar dute.
- Anaiarekin haserretu zen eta \_\_\_\_\_ bidali zuen.
- Oso gustura ibili ginen hondartzan, baina denbora gehiegi eman genuen \_\_\_\_\_.
- Atzo eskua \_\_\_\_\_ jarri nuen eta erre nintzen.
- \_\_\_\_\_ joan beharko nuke ile-apaindegira, ilea luzeegia dut eta.
- \_\_\_\_\_ esnatu naiz eta ez naiz berriz lokartu.
- Aitor, Miren eta Haizea etorri dira? Bai, \_\_\_\_\_ etorri dira.
- Euskal Herriko mendi \_\_\_\_\_ pagoak ikus daitezke.
- " \_\_\_\_\_ jo eta bertan ikusiko duzu bilatzen ari zaren denda".
- Neguan itsasoko \_\_\_\_\_ sartuz gero, azala leun-leuna izango duzu.

EGUZKITAN

HIRURAK

SUTAN

URETAN

LAURETAN

EZKERRETARA

GEHIAGOTAN

PIKUTARA

URETAN

GEHIENETAN

GEZURRETAN



Ikaslearentzako orriak

dek



## 1 jarduera:

### **EUSKARALDIA. Ezagutu Euskaraldiaren nondik norako guztiak**

#### **Bideoa**

#### **Transkripzioa:**

Udazken honetan, Euskaraldiaren 2. edizioa izango dugu. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean, milaka Belarriprestek eta Ahobizik hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala egingo dugu.

15 egunez, euskararen erabilera handitzeko asmoz, eguneroko inertiak astinduko ditugu. Duela 2 urte demostratu genuen bezala, uste baino jende gehiagorekin egin baitezakegu euskaraz.

Euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egin nahi dugun 16 urtetik gorako herritarrek hartuko dugu parte Euskaraldian.

Ariketa praktikoa denez, euskara ulertzeko gai izan behar dugu eta, ariketa egiteko moduaren arabera, ondorengo bi roletako bat aukeratuko dugu:

**Ahobizi:** ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo dut uneoro. Kideek ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitzak, beti, euskaraz egingo ditut. Ulertzen badute, hala jarraituko dut. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eutsiko diot kideek ulertzen dutenean.

**Belarriprest:** nire gaitasuna eta aukeren arabera erabakiko dut euskaraz noiz eta norekin egin. Baliteke ulertzen duten guztiekin beti euskaraz ez egitea, baina dakitenek niri uneoro euskaraz hitz egitea nahi dut eta horixe eskatuko diet modu esplizituan.

Aurtengoan, gainera, herritar askok, mota guztietako enpresa, kirol- eta kultura-elkarte, saltoki eta erakunde publikoetan osatzen ari diren Ariguneetan egingo dute ariketa. Herritarren ariketa erraztu eta babesteko, entitateek ere hartuko dute parte, beraz.

Aurtengo berrikuntza nagusia da Arigunea. Euskaraz lasai aritzeko gunea, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen da uneoro bertan, eta Arigunea osatzen duten kideak Ahobizi edo Belarriprest izango dira.

Ohiko taldeez gain, herritarrekiko harremanetarako kanpo-ariguneak ere izango dituzte entitateek.

Euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko, herritarrek Belarriprest edo Ahobizi giza emango dugu izena Euskaraldian.

Rola aukeratzean, jokaeran dago gakoa.

## Zuzenketa-orria

### Euskaraldia 2020 kanta

24 / 7

Gehiago... Gehiagorekin... Gehiagotan.

Prest al zara? Esan, esan... esan esan

Prest al zara? Esan... bai!

Zaindu maite duzun hori... zaindu... zain gu... maite duzuna?

Armairutik atera armairua bera! Atera ba! Atera!

Bagera – ezer ez da berdin (e)ta segi aurrera

Bagare – ez da erraza, baina halere...

Bagira – ez geratu begira

Bagire – ez esan ez dela posible

Zenbat gara? Ni, bat

24 / 7

Zenbat gara? Gu, bat

Asko (e)ta ez aski

Prest bazara esan, esan

Prest bazara esan

Prest bazara esan, esan

“Jalgi hadi plazara, jalgi hadi

Han bat eta han bi.

Hainbat... eta handi!

Jalgi hadi plazera, adi, adi

Batera... bat bera...”

Bagera – mugetan preso inor ez dadila gera

Bagare – aspaldi belarriak ahoen zain daude

Bagira – ahoak belarrien bila dira

Bagire – gorputz txarrik ez da bizitzeko libre

Zenbat gara? Ni, bat

24 / 7

Zenbat gara? Gu, bat

Asko ta ez aski



Zuzenketa-orriak



dek



## 2. jarduera: "Euskaraldia entrenamendua da, ez partida"

### zuzenketa-orria

**a)** "Askoz ere Belarriprest gehiago behar dira, Ahobiziak baino". Zergatik esaten du hori Jauregik? Zein arrazoi ematen ditu? Eta zuk, zer uste duzu?

Belarriprest figurak konpromiso-maila txikiagoa eskatzen du, errealistagoa da. Batzuek ulertzen dute euskara, baina hizkuntza-ohiturak aldatzeko ez daukate iniziatibarik; beste batzuek ez dute nahi; beste batzuei ezezagun guztiei euskaraz egitea nekezegia egiten zaie... baina ulertzen dute, eta jendeak euskaraz egiten badie, prest daude euskaraz egiteko. Rol pasiboagoa da. Jende askok tokia eduki beharko luke hor.

**b)** Zer da hizkuntza-simetria? Zer iritzia duzu?

*Ahobiziak* euskaraz hasten direnean eta *Belarriprestak* parean dituztenean, gehienak pasatuko dira inertziak euskarara, badago kutsadura-fenomeno bat. Mekanismo psikologikoa da, hizkuntza-simetria esaten zaio; alegia, eroso sentitzen gara hizkuntza bereko elkarrizketetan.

**c)** "Ele biko elkarrizketek funtzionatzen dute, baina ezin dira modu masiboan aplikatu". Zein argudio ematen du Jauregik hori esateko? Zer uste duzu zuk? Halako esperientziarik duzu?

Ele biko elkarrizketek funtzionatzen dute, baina ezin dira modu masiboan aplikatu. Oso antinaturalak dira. Ahalegin gehigarria eskatzen dute eta benetan gogo handia daukaten pertsonak baino ezin dituzte egin. Ezin dugu pentsatu euskara-gaitasun handia duten guztiek horrela jokatu dutenik.



## Transkripzioa:

<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/biba-zuek/bideoak/osoa/7541731/bideoa-yasmine-khris-maansri-marseillako-euskaldun-berria/>

- Hemen dugu gure Euskaraldiaren aditua... esango dugu... Marta Elvira, arratsalde on.
- Arratsalde on, Maialen. Zer moduz zaudete?
- Ba(da), oso ondo, (e)ta zu zer moduz zaude? Gaur zer ekarri diguzu?
- Ba(da), begira, gure gaurko gonbidatuarentzako aurten izango da bere lehenengo Euskaraldia, eta izango da Ahobizi peto-pettoa gainera. Yasmine Khris ezagutuko dugu gaur, eta bera Marseillakoa da, xaboiak bezala agian, eta horrexegatik hitz egiten du hain garbi euskaraz. Arratsalde on Yasmine; nahi duzunean, aurrera.
- Kaixo, arratsalde on.
- Zer moduz?
- Ongi, eta zu?
- Oso ondo. Bidaia ondo Iruñetik?
- Bai, oso ongi, lasai.
- Nolatan iritzi zinen Iruñera?
- Nola, nola... aver, aver, istorio pixka bat berezia.
- Marseillako neska bat, Iruñera.
- Bai, ba(da) horixe, ba(da), garai hartan ez nekien zen egin, ikasketak bukatu nituen eta zer egin nire bizitzarekin eta, bueno, kazetaritzaren mundua ezagutu nahi nuen eta bueno, ahotsa.infoko komunikabideak, Iruñekoak, Nafarroakoak ere, ba(da), deitu didate, beno nik bidali nien mezu bat eta deitu didate praktikak egitera haiekin.
- Begira, eta zenbat denbora daramazu hemen, Euskal Herrian?
- Hemen, urte eta erdi.
- Urte eta erdi eta horrela hitz egiten duzu! Hau marka!
- Ba(da), bai, ikusteko egin daitekeela, ez?
- Eta etorri zinen euskara ezagutu gabe kaxotxen artean, hitz egin gabe.
- Bai, zerotik e, literalki, bai, bai, beno hitz batzuk.
- Eta animatu zinen, hona etorri eta euskaltegian apuntatu edo nola izan zen prozesua?
- Euskaltegian apuntatu naiz, beno, eman nituen bi aste euskaltegian, eta gero zuzen barne-tegira, udako barnetegira, Bizkaian, Foru(a)n. Ordu(a)n, ba(da), barnetegian bada dena pixka bat intentsoa, ba(da) immersio totala, eta hantxe ba(da)...
- Heavy gustatzen zaizu, esan zenuen, zuzenean barnetegi batera eta gainera Bizkaira, osea, maitasun osoa euskararekin.
- Pak konpletoa bai, eta bueno, gero jarraitu nuen, euskaltegiarekin egunero, orain arte. Eta horixe pixka bat nire bizitza osoa edo (er)rutina bat hartzen euskaraz.
- Eta euskaltegian euskaraz, eta kanpoan? Ze(ren) hori da betikoa, irakasleek esaten dituzten hitzak, kanpoan nola?
- Nahiz eta zaila izan Iruñean egunero euskaraz hitz egitea, egin daiteke.
- Bai, ezta?
- Bai.
- Pisukideak ere euskaldunak?





- Baditut bi; bai, euskaldunak.
- Horrek lagunduko dizu agian, ez?
- Pilo, pilo, pilo, erakusten dizkirate gauza pilo.
- Eta zer esango zenioke... ba(da) agian badago baten bat etxean esanez "Ba(da) ni ez naiz animatzen euskara ikastera". Zer esango zenioke pertsona horri?
- Pertsona horri... ba(da) pertsona horrek orain ikus daiteke, egin daitekeela, esan nahi det, beti erraten da ba(da), ez dakit, ba(da) euskara oso zaila dela, bai aditzak, bai gramatika, bai dena, baina bueno, nik uste zailena dela, ba pixka bat gogoa jartzea hasieran eta gero ya está, bazaude.
- Ze(in) polita, (e)ta bihotza jartzea.
- Bai, gogoa.
- Familian ez zara euskaldun bakarra.
- Ez naiz.
- Kontatu... a ver, zein da istorioa...
- Kontua da, amona euskalduna da, amona Usurbilgoa da eta 12 edo 13 urterekin joan zen Aljeriara. Oso istorio berezia da. Garai hartan...
- Zer lan egitera?
- Bai, lan egitera, garai hartan jendea joaten zen Frantziara edo Alemaniara, ba(da) ez, amona maitasunagatik ere joan zen Aljeriara eta hantxe geratu zen orain arte. Han dago, ordu(a)n bai, sustraiak galdu genituen pixka bat familian, baina begira ba(da) nik hartu dut pixka bat, ez dakit, aukera hau, ba(da) berriz euskara jartzea gure familian.
- Eta berak galdu zuen hizkuntza edo ez?
- Keva, harritu nau, harritu nau berarekin hitz egin nuenean, zeren, bazen oraindik, azken finean lehen hizkuntza, ama-hizkuntza, uste dut ama-hizkuntza ez dela inoiz galtzen.
- Eta harro zegoen momentu horretan.
- Oso harro.
- ... esan zenionean "amona, euskara ikasi dut".
- Bai.
- Ze(in) polita momentu hori, ez?
- Bai, deitu nuen, egin genuen bideokonferentzia bat, ez, sakelakoz eta, bueno, bukatu genuen biok negarrez, osea, oso momentu hunkigarria zen, bai.
- Eta ikasteko prozesuan, ibilbide horretan, zein izan da zailena?
- Zailena...
- Gogorrena... ai aditzak, ai ez dakit ze(r)...
- Ez, hizkuntzaren mailan ez, bada pixka bat jarreraren mailan, lotsa galtzea, lotsa galtzea hasieran eta ya está. Prozesuan baldin bazaude... ba(da)... jarraitu eta aurrera.
- Hanka sartzeko beldur hori, agian?
- Bai... eta hanka sartzan dut nik askotan; ziur aski, orain ere bai.
- Baina, beno, gutxitan...
- Eta hiztegi zabala daukagu gure hizkuntzan eta hitz bat eskatu dizut, gaur pixka bat aztertzeko eta horren inguruan hitz egiteko. Zein da zure hitza?
- Eragin.



- "Eragin", ikus dezagun, ze(ren) hemen daukagu, esanahi ezberdinak dauzka, orduan hemen daukagu eragin, etxean ere adi, badaezpada. Eragin, ze(in) esanahia dauka, hitz honek, a ver, eragin... aztertuko dugu pixka bat ikasteko, aprobeixatu, "zerbait egitera bultzatu, alde batetik, bestetik, zerbaitek edo norbaitek beste zerbaitetan edo norbaitengan ondore bai izan, edo mugitu, mugiarazi" zergatik hartu duzu "eragin" hitza?

- Ba(da), ikusten duzu, esanahi pilo bat ditu, hauek dira 3 eta gero bertze batzuk ere, kontua da eragin hitza bada aditz bat oso zabala, eta erran nahi du ere beti mugimenduan gaudela, ez, eragin.

- Ze(in) ona...

- Bai, eta nik beti mugimendu esan nahi hau ba(da) gustatzen zait. Beti ari gara ba(da) zerbait ikasten, zerbait egiten edo beste norbait hori bultzatzen, polita da.

- Aiii, ze(in) polita. Esan dugu hasieran, aipatu dugu, zure lehenengo Euskaraldia izango dela, nola biziko duzu Euskaraldi hori?

- Gogoekin, lehendabiziko gauza gogoekin eta, bueno, apuntatu naiz jada Ahobizi txaparekin.

- Noski.

- Bueno, ikusiko dugu, ez?

- Noski, zalantzarik ez, ez, ez...

- Gogoarekin?

- Bai, asko.

- Eta gustatu zitzaizun beste gauza bat "auzolana" hitza asko gustatzen zaizula esan zenidan behin.

- Bai, auzolana.

- Zergatik?

- Jo, ba(da) auzolana ere oso Euskal Herriko hitz lokal bat, gustatzen zait nola auzolana definizio zehatzetik zabaldu zen ere hainbat arlotan, ez, auzolana bai, auzoenean, auzoan barkatu, baina baita ere lagunekin, familiarekin, hainbat mugimendutan, polita.

- Hau auzolana ere eragin... eskerrik asko hitz hauek ekartzeagatik eta eskerrik asko honera [hona] etortzeagatik, plazer bat izan zara... izan da guretzako, eredu bat zarelako... Maialen, Xabi... zer iruditzen zaizue... eragin... auzolana... ze(in) politikak, ezta?

- Bai, bai... egia esan, Yasmine entzuteak eragin digu guri ere, barrenak mugitu dizkigu, astinduarazi dizkigu, eragin... eta berak esan du... mugimendua, bizitza, bizirik dagoen hitz bat da eragin, ezta?

- Eta guk ere, esango nuke, batez ere mingainari eragiten diogula arratsaldero.

**Yasmine Khriki egindako elkarrizketa ikusi ondoren, aipamen hauek egia ala gezurra diren esan behar duzu:**

Euskal Herrira etorri da euskara ikasteko asmoz. **GEZURRA**

Euskara ikasteko zailena gogoa jartzea da. **EGIA**

"Eragin" hitza oso zabala da, eta beti mugimenduan gaudela esan nahi du. **EGIA**

Auzolana hitz zabala izatetik hitz zehatzera izatera pasatu da azken urteetan. **GEZURRA**

### **Transkripzioa**

#### **Ariguneak, adostasunaren garrantzia**

Bideotxo honetan, taldearen adostasunaren garrantziaz hitz egingo dugu.

Arigune moduan parte hartzeko erabakia taldeak hartu badu, horrek zilegitasun, babesa eta indar berezia ematen dio ariketari. Kide bakoitza seguruago sentituko da, eta modu horretara ariketa bera eraginkorragoa izango da.

Adostasunerako momentu hau, demagun, bilera batean ematen bada, aprobetxatu daiteke ba(da), besteak beste, kideek dituzten espektatibez, asmoez, motibazioez, intseguritateez, horiei aurre egiteko moduez... Gauza horiek guztiak taldean komentatzen badira, dudarik gabe, ariketa erosoagoa eta eraginkorragoa egingo dutela uste dugu.

Bideo honetan azaldutako kontura edozein galdera edo zalantza baldin badauzkazue, gogoratu hemen behean iruzkinetan galdetu dezakezuela. Bestela entitateak@euskaraldia.eus helbidera elektronikora idatzi.

Eta horrelako bideo gehiago ikusi nahi izanez gero, harpidetu gure kanalera.

Agur.

#### **Identifika ezazu zein argudio aipatu dituen Ariguneen garrantzia azpimarratzeko:**

**A** Taldeak indarra eta babesa eskaintzen dizkio euskaraz aritu nahi duenari.

**B** Zilegi da bakoitzak nahi duen hizkuntzan aritu ahal izatea.

**C** Euskaraz egiteko segurtasuna norberak ez badauka, taldeak ezin dio hori eskaini.

**D** Askoz eraginkorragoa da ariketa taldean egitea, nor bere kabuz baino.

**E** Taldeak tresnak eskaintzen dizkio euskaraz aritu nahi duenari bere beldurrak, lotsak, segurtasun eza... gaingitzeko.

### **4. jarduera: Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan**

#### **Bete itzazu esaldi hauek behean dituzu hitzekin:**

Nire lagunari ez egin kasu handirik, beti **GEZURRETAN** dabil eta.

Babarrun gorriak egosi baino lehen, **URETAN** egon behar dute.

Anaiarekin haserretu zen eta **PIKUTARA** bidali zuen.

Oso gustura ibili ginen hondartzan, baina denbora gehiegi eman genuen **EGUZKITAN**.

Atzo eskua **SUTAN** jarri nuen eta erre nintzen.

**GEHIAGOTAN** joan beharko nuke ile-apaindegira, ilea luzeegia dut eta.

**LAURETAN** esnatu naiz eta ez naiz berriz lokartu.

Aitor, Miren eta Haizea etorri dira? Bai, **HIRURAK** etorri dira.

Euskal Herriko mendi **GEHIENETAN** pagoak ikus daitezke.

"**EZKERRETARA** jo eta bertan ikusiko duzu bilatzen ari zaren denda".

Neguan itsasoko **URETAN** sartuz gero, azala leun-leuna izango duzu.

